

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzen 2023-2024ko deialdiaren oinarriak

Udalbatzak, 2024ko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran, 2023an euskara ikasteko laguntzak arautzeko oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da 2023/2024 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta ostatuak izan ezik), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

BIGARRENA. ONURADUNAK.

Laguntzak eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira:

a) Donemiliagako udalerrian erroldaturik egotea, 2023-2024 ikasturtea hasi aurretik. Baldin eta ikasturtean zehar erroldan baja ematen bada, dirulaguntza erroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.

b) Izena ematean 16 urte baino gehiago izatea.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea.

d) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Ikastaroetarako baino ez da emango dirulaguntza. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.

e) Hautatutako ikastaroa euskalduntze edo alfabetatze maila baten parekoa izan behar da gutxienez.

f) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan izana bermatu behar da edo ikastaroa gainditu.

HIRUGARRENA. AGIRIAK ETA ESKAERAK.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Udalak egindako eskaera ofiziala.

b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.

c) Euskaltegiaren agiria, ikastaroaren ezaugarriak (hasiera eta amaiera egunak, asistentziari buruzko datuak, ikastaroa edo ikastaroak gainditu izanaren egiaztagiria...) eta matrikula ordaindu izana egiaztatzen dituenak.

d) Barnetegi batera joanez gero, zentroaren ziurtagirian mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banakatu behar dira.

e) Euskaltegiaren agiriak matrikula ordaindu izana egiaztatzen ez badu, bankuaren ziurtagiria, matrikula ordaindu dela egiaztatzen duena.

f) Langabezian egonez gero, egoera horretan egon deneko aldia egiaztatzen duen agiria

g) Lanaldi partzialeko enplegatua izanez gero eta arduraldia ehuneko 33 baino gutxiago izanez gero, egoera hori egiaztatzen duen agiria.

h) Ikasketa ofizialak egiten ari eta 26 urte baino gutxiago izanez gero, ikasketa horiek egin direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

i) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa edo laguntza eskatu izana egiaztatzen duen agiria edo zinpeko adierazpena.

LAUGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Eskabideak Donemiliagako Udalaren bulegoetan jaso daitezkeen inprimakietan egin behar dira, eta eskatzen diren gainerako agiriekin batera aurkeztu behar dira Donemiliagako udal-txean, 2024ko urriaren 31rako.

BOSGARRENA. AURREKONTU KREDITUA ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2024ko aurrekontu orokorreko 335 48200 partidaren kredituari egotziko zaizkio, zeina 2.000,00 euroz hornituta baitago. Partida hori handitu egin daiteke.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ondokoen arabera zehaztuko da, eta kontuan izango da, betiere, aurrekontu kredituaren muga:

a) Eskatzailea langabezian badago 2022-2024 ikasturtean zehar, laguntzaren zenbatekoa matrikula osoa izango da (gehienez 600 euro eskatzaileko eta urteko). Langabe partzialen kasuan, ikastaroaren iraupenaren ehuneko 60 baino gehiago langabezian ematen duen eskatzaileari soilik aplikatuko zaio matrikularen guztizkoa. Horiek langabetzat hartuko dira ikasturteko gehieneko dirulaguntza aplikatzeko garaian, eta, beraz, 600,00 euroko dirulaguntza jaso ahal izango dute gehienez. Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 75eko dirulaguntza aplikatuko da, eta 450,00 euro izango da gehieneko muga.

b) Eskatzailea ikasketa ofizialak egiten badago 2023-2024 ikasturte osoan, laguntzaren zenbatekoa matrikula osoa izango da (gehienez 600,00 euro eskatzaileko eta urteko).

c) Eskatzailea ez badago langabezian, laguntzaren zenbatekoa matrikularen ehuneko 75 izango da (gehienez 450,00 euro eskatzaileko eta urteko).

d) Ikastaroak irauten duen bitartean, hitzartutakoaren (40 ordu astean) ehuneko 40tik behe-rako lanaldia duten langile partzialak langabetzat hartuko dira ondorio guztietarako. Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 75eko dirulaguntza aplikatuko da, eta 450,00 euro izango da gehieneko muga.

SEIGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN.

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta gainfiantzaketa-rik gertatzen ez bada.

Euskara ikasteko bestelako laguntza edo dirulaguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Mer-kataritza Ganbera, HABE...), eskatu egin behar dira.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

ZAZPIGARRENA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

- Emandako laguntza onartzea eta eskatutako xederako erabiltzea.
- Eskatutako ikastaroa edo ikastaroak egin izana egiaztatzea, bai eta laguntza jasotzeko ezarri diren betekizunak eta baldintzak bete izana ere.
- Laguntzan eragina duten aldakuntza edo aldaketa guztiak idatziz jakinaraztea.
- Donemiliagako Udaleko organoek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudunek eskatzen dituzten argibide guztiak eman beharko dira.
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak bete behar dira.

ZORTZIGARRENA. ESKAEREN AZTERKETA ETA EBAZPENA.

Euskara zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzearren, horien arabera egin behar baita ebazpen proposamena.

Donemiliagako Udaleko alkateak du dirulaguntzak emateko eskumena, froga-agiriak aurkeztu ondoren, eta gero ordainduko da onartutako dirulaguntza osoa.

Eskaeren ebazpena gehienez ere hiru hilabetetan eman behar da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurto jar daitezkeen haren aurka. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da ebazpena.

BEDERATZIGARRENA. LAGUNTZA GALTZEA ETA DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espedientea irekita, kasu hauetan:

- Daturen bat faltsutzen badute eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza ez badute erabiltzen hura ematen den xede eta jardueretarako.
- Ezarritako betebeharren bat betetzen ez badute.
- Dirulaguntzen Udal Ordenantzako 19. artikuluan ezarritako kasuetan.
- Emandako laguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzaren araututakoaren arabera izango da.

HAMARGARRENA. ERREKURTSOAK.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

HAMAIKAGARRENA. BESTE XEDAPEN BATZUK.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du. Hauek dira aplikatu beharreko oinarrizko arauak: dirulaguntzen udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

Erdoña, 2024ko ekainaren 24a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO

AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.donemiliaga.eus

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA/
2023/2024 IKASTURTEA
ESKAERA ORRIA

ESKATZAILEAREN DATUAK

IZENA		NAN
1. ABIZENA		
2. ABIZENA		
Kalea	Zk	Solairua
Herria		
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea
e-posta	Telefono zk.	Sakelakoaren zk.
Kontu zenbakia		
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informazioarako soilik		
<input type="checkbox"/> BAI		
<input type="checkbox"/> EZ		

DEKARATZEN DUT

 Betebehar fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA

- Eskatzailearen NANaren kopia.
- Matrikula ordaindu izana egiaztatzen duen jatorrizko banku-agiria, edo dagokion kasuan, ordainagiriaren kopia konpultsatua. (ordainduta dagoela adierazi)
- Ikastaroa eskaintzen duen zentroaren jatorrizko egiaztagiria honako informazioarekin: Hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira, aprobetxamendua, kostua...
- Langabezian egonez gero (ikastaroa iraun bitartean %60a baino gehiago langabezian) edo ikaslea izanez gero, hura ziurtatzen duen agiria.
- Lanaldi partziala izanez gero, %40 baino lanaldi txikiagoa: ziurtatzen duen dokumentua (bizi-tza laborala).

AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.donemiliaga.eus

- 2022-2023 ikasturtean ikasketa ofizialak egin izanaren ziurtagiria.
- Beste diru-laguntzarik jasoko den edo ez adierazten duen zinpeko aitormena (beheko aldean), eta dagokion kasuan, eskaeraren kopia. Eskaerak erantzuna jaso badu, ebazpenaren kopia, onartutako zenbatekoa edo ukatua izan dela aipatuz. Dagokion kasuan, ebazpenaren zain dagoela aipatu.
- Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez edukitzearen erantzukizuneko adierazpena, eta horretarako legezko inolako debekurik ez izatearena, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13 artikulua zehaztu bezala. (III eranskina)
- Donemiliagako Udaleko errolda-agiria, onuradunaren antzinakotasuna adierazita

Zinpeko aitormena

.....Jaun/andreak,NAN zenbakiduna

AITORTZEN DU:

- Heburu bererako ez duela inolako diru-laguntzarik jaso edo eskatu.
- Helburu bererako diru-laguntza jaso edo eskatu duela

Nori eskatu?

Emandako zenbatekoa:

Ebazpenaren zain?

Ordoñanan, 2024ko _____aren ____-(e)an

Sinadura